# SHARING ARTISTIC STRATEGIES

# TELENOUVELLE BASQUE




MAI/5-9 ESTRATEGIA ARTISTIKOAK BANATZEN

## TELENOUVELLE BASQUE

Tailer honetan, **Fran Illich**-ek mexikar kultura herrikoia berrinterpretatzeko telenobela tresna lagungarri bezala proposatuko du. Cowboyen zinematik indioen eta bakeroen arteko harremanak aztertuko ditu tailerrak. Nor da horien artean ona eta nor da gaiztoa? Amairik gabeko nahastea da honako hau. El Zorro Mexiko-AEB migrazioaren ikono bezala aztertzera pasatuko da ondoren. Antifaza, maskara eta buru-berokia nortasun *glocal*aren ikur gisa aztertuko dira tailerrean.
Galdera eta elementu horien bitartez, egun, Mexikon, *Tactical Media* eta arrail digitalaren eragina ikusi ondoren, bere *Modem Drama*, *Telenouvelle Vague* eta *Fea y Rebelde* aztertuko ditu Fran Illich-ek, eta lan horiek izan dituzten mugak eta oztopoak azalduko ditu. Astean zehar, euskal kulturan telenobelaren baliokidea topatzen saiatuko da. Horrela, ikuspuntu kritikotik euskal kultura herrikoia ekoiztuko da. Tailerrean teoria eta praktika uztartuko dira.

Ordutegia: 10:00-14:00 / 16:00-20:00.
Parte-hartzaileak: gehienez 12.

MAI/8 MAHAI INGURUA
19:00 FREE CULTURE. TRANSLATIONS AND AUTHORSHIP

**Natxo Rodríguez**-ek moderatua.
**Fran Illich**, **ptqk** eta **Cornelia Sollfrank**-en parte hartzearekin.